

# Non daude pertsona intersexualak eta/edo asexualak? *¿Dónde están las personas intersex y/o asexuales?*

**Behatokia**

**Euskal LGTBI+ Behatokia**  
Observatorio Vasco LGTBI+

"Trans Legea" izenez ezagutzen dena funtsezkoa izan da LGTBI+ pertsonen eskubideetan aurrera egiten jarraitzeko, baina ez, oraindik ez da nahikoa. Hasteko, ez ditu ez barne hartzen, ez babesten, "+" horren identitateak, hala nola pertsona ez-binarioak, asexualak, arromantikoak eta abar. Hala ere, gaian adituak direnek zalantzan jartzen dituzte dagoeneko lortu diren eskubideak, eta argi uzten dute artatzen dituzten pertsonetako enpatiarik eta ulermenik eza.

Urriaren 19an, Deustuko Unibertsitatean, "Trans Legea" delakoari buruzko jardunaldi bat egin zen, Magistraturako Elkarte Profesionalak (APM) antolatuta. Hurrengo egunean, El Correo-n, jardunaldi hari buruzko albiste bat ikusi genuen, Eusko Jaurlaritzaren organigramarekin lotutako hiru pertsonaren adierazpenak komatxoaren artean jasotzen zituen.

Bertan auzitan jartzen da familiak onartzen duela "izen-aldaketa harrigarria den erraztasunarekin. Basurtun ez diegu izena aldatzen. Koherentzia behar dugu", kontuan hartu gabe nahi ez den izen bat erabiltzeak sor dezakeen ezinegon handia eta gure izenak aukeratu nahia zerbait arrotza balitz bezala tratatuz, nahiz eta testuinguru desberdin batean (adibidez lagunartean goitzen bat aukeratzea) guztiz naturalizat hartzen den. Oso deigarria den beste adierazpen batean aipatzen dira debekatuta dauden "konbertsio-terapiak, baita interesdunak baimendu arren ere". Terapia horiek «Sexu-orientazioa, genero-identitatea edo -adierazpena aldatzeko edo moldatzeko ahaleginak» (ECOSIEG, gaztelaniazko akronimoagatik) izenez ere ezagutzen dira, eraginkorrak ez direlako, kaltegarriak direlako eta [gutxiengoaren estresa](#) larriagotzen dutelako. Terapia horiek LGTBIfobia betikotu besterik ez dute egiten. Azkenik, oso adierazgarria "genero-disforia"

*La conocida como "Ley Trans" ha sido vital para seguir avanzando en los derechos de las personas LGTBI+, pero no, aún no es suficiente. Empezando porque ésta no incluye ni protege a las identidades de ese "+" como son las personas no binarias, asexuales, arrománticas, etc. Sin embargo, incluso los derechos ya conseguidos son cuestionados por especialistas en el tema, dejando claro su falta de empatía y comprensión por las personas a las que atienden.*

*El 19 de octubre en la Universidad de Deusto se celebró una jornada sobre la "Ley Trans" organizada por la Asociación Profesional de la Magistratura (APM), al día siguiente veíamos en El Correo una noticia sobre la jornada que entrecomilla algunas declaraciones de tres personas vinculadas al organigrama del Gobierno Vasco.*

*En esas declaraciones se cuestiona que la familia asuma "con una facilidad pasmosa, por ejemplo el cambio de nombre. En Basurto no les cambiamos el nombre. Necesitamos coherencia.", sin tener en cuenta el gran malestar que puede causar el uso de un nombre no deseado y señalando el deseo de elegir nuestros nombres como si fuese algo extraño cuando en un contexto diferente, como lo es elegir un mote entre tus amistades, se percibe como algo totalmente natural. Otra declaración muy impactante habla sobre la prohibición de "las terapias de conversión, incluso aunque el interesado dé su consentimiento", terapias también conocidas como ECOSIEG (Esfuerzos de cambio o modificación de la orientación sexual, identidad o expresión de género) por ser inefectivas, dañinas y agravantes del [estrés de la minoría](#). Éstas sólo perpetúan la LGTBIfobia. Por último, el uso de términos como "disforia de género", pese a que la OMS ha*

da terminoa erabiltzea, nahiz eta OMEk terminologia hori baztertua duen. Gainerako baieztapenekin batera, transfobiaren zantzu argi bat da hori, eta erakusten du ustezko espezialista horiek ez direla gai gu aurreiritzirik gabe artatzeko.

Euskal LGTBI+ Behatokitik nabarmendu nahi dugu gure kolektiboarentzat zein garrantzitsua den erakunde publikoek, gizarte-kolektiboek eta komunikabideek ospatzea eta ezagutaraztea gure nortasunak ospatzen dituzten egunak. Egun horiek erabilgarriak dira ikusarazteko, kontzientziatzeko eta gu ere, izan, bagarela naturalizatzeko, azken batean, hizketagai ez dena ez baita existitzen. Adibidez, joan den urrian, bi egun eta aste bat ospatu dira, oihartzun handirik gabe:

Urriaren 11a, Armairutik Ateratzearen eguna

Urriaren 23tik 29ra, Kontzientziazio Asexualaren astea

Urriaren 26a, Intersex Ikusgaitasunaren eguna

Azken bi horiek, bereziki, helburu bat dute: izan, bagarela jakinaraztea eta ez gaitzatela ikusi konpondu beharreko desbideratzeak izango bagina bezala; izan ere, pertsona asexual eta intersexualoi oraindik ere auzitan jartzen digute, izan, bagarela eta medikalizatu egiten gaituzte. Gizarteak egun hauen aurrean erantzun beharko luke esanez, ikusten zaitut, aitortzen zaitut, zure lekua ematen dizut. Deustuko Unibertsitatean egindakoa bezalako ekitaldietan gutaz hitz egiten da, baina gu gabe, eta horrelakoek arrakala irekita mantentzeko eta LGTBI+ eskubideen aurrerapen azkarra eragozteko baino ez dute balio.

*desterrado esa terminología, es altamente significativo. Unido al resto de afirmaciones, supone un claro indicio de transfobia y descalifica a estos supuestos especialistas para que nos atiendan sin prejuicios.*

*Desde el Observatorio Vasco LGTBI+ queremos poner en valor, la importancia que para nuestro colectivo tiene, que desde las Instituciones Públicas, los colectivos sociales y los medios de comunicación, se celebren y publiciten los días que celebran nuestras identidades. Éstos sirven para visibilizar, concienciar y, en definitiva, naturalizar nuestra existencia, porque de lo que no se habla no existe. Por ejemplo, en el pasado mes de octubre, se han celebrado dos días y una semana, con escasa o nula repercusión:*

*11 de octubre Día para Salir del Armario*

*Del 23 al 29 de octubre Semana de la Concienciación Asexual*

*26 de octubre Día de la Visibilidad Intersex*

*Estas dos últimas celebraciones particularmente persiguen un objetivo: que se sepa que existimos y se nos deje de ver como desviaciones a las que “arreglar”, ya que tanto las personas asexuales como intersex seguimos siendo altamente cuestionadas sobre nuestra existencia y medicalizadas. La sociedad debería de responder ante estos días con un, te veo, te reconozco, te doy tu lugar. Actos como el celebrado en la Universidad de Deusto donde se habla de nosotras, sin nosotras, sólo sirven para mantener la brecha abierta e impedir el avance fluido de los derechos LGTBI+.*